

## Ingurumen-politika



**Barrualde - Galdakao ESIa** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzu barruko erakundea da, eta bere misioa, kalitatea, segurtasuna eta jasangarritasuna bermatuz, herritarren osasuna hobetzearen alde lan egitea da.

Jakinda, batetik osasun-arloko jarduerak ingurumenari kalte eragiten diola, eta bestetik, herritarren bizi- eta osasun-

kalitatea, ezinbestean, ingurumenari lotuta dagoela, Barrualde-Galdakao ESIan konpromiso hau hartu dugu: **Ingurumena errespetatzea erakundearen jarduera-esparru guztietan**. Hori lortzeko, gure estrategian eta kudeaketan printzipio hauetan oinarritutako ingurumen-politika sustatuko dugu:

- ✓ Dokumentatzea, ezartzea eta EMAS araudian oinarritutako **Ingurumena Kudeatzeko Sistema eguneratuta izatea**. Horretarako, noizean behin, sistemaren eraginkortasuna egiaztatuko dugu arreta espezializatuko zentroetan kanpo auditoriak eginez, eta horrela ingurumenarekiko jokaera etengabe hobetzeko konpromisoa beteiko dugu.
- ✓ **Ezagutzea eta errespetatzea** ingurumen arloan, gure erakundeari ezarri ahal zaizkion indarreko legedia, araudia eta xedapenak, baita gure erakundeak boluntarioki har ditzakeen ingurumen-betekizunak ere.
- ✓ Paziente, profesional eta intereseko taldeen **sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzea** ingurumenari lotutako gaietan.
- ✓ **Materialen, baliabideen eta energiaren kontsumoa optimizatzea**, ekintzak planifikatuz eta inbertsioak eginez.

- ✓ **Gure karbono-aztarna neurtzea eta murriztea**, klima aldaketaren aurkako borrokan lagunduz.
- ✓ **Hondakinak kudeatzeko orduan, horiek murrizteari, berriro erabiltzeari eta birziklatzeari lehentasuna ematea**, eta alboratzea, berriz, hondarrak erretzea, energia-balorizazioa eta edukiontzietan uzteko jokaera.
- ✓ **Ingurumena babestea** eta gure prozesu eta aktibitateek sortutako **kutsadura ekiditea**.
- ✓ **Erosketa berdeari lotutako politikak aplikatzea**, hornitzaileen akuilu izan daitezen. Ildo horretan modu positiboan baloratuko dira ingurumena errespetatzen duten praktikak aurrera eramaten dituzten, eta produktuen bizi-zikloa kontuan hartzen duten erakundeak.
- ✓ **Eraginkortasun arloan erabilgarri dauden tekninarik onenak kontuan hartzea** instalazio, obra zein egokitzapen lan berriak egiteko orduan.
- ✓ **Gure kontsumoak eta isuriak arinago neurtu eta monitorizatzea**, desbideratzerik balego, horri azkar eta era eraginkorrean ekin ahal izateko. Era berean, ezarritako jardueren eraginkortasuna ere monitorizatzea.
- ✓ **Gardentasuna bultzatzea**. Horretarako gure erakundeak ingurumenaren arloan dituen emaitzak jakinaraziko ditugu.
- ✓ **Gure esperientzia partekatzea** Osakidetza sareko gainerako erakundeekin eta bestelako zentro eta enpresekin.

**Zuzendari gerentea**  
*Jon Guajardo Remacha*

2018ko ekainaren 18a